

GIL 42 Uarkako multzo bolkanikoa



Uarkako GILeko laba lobulatuak (*lobate flows*).

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 19' 3" N

Long.: 2° 39' 17" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 528.002,00 m

Y: 4.796.126,00 m



Nola iritsi

Hartu BI-3241 errepidea —Gernikatik Eleizaldera—, eta, Uarkara iristean, hartu Munitibarrerantz. BI-3242 eta BI-3241 errepideen ia bidegurutzean bertan, harrobi zahar baten zulo txiki batzuk daude; bertan azaleratzen dira konplexu bolkanikoaren labak.



Uarkako GILaren ikuspegi orokorra.



Kuxin-laben beheko kolada. Ohartzekoa da arroka sedimentarioekin kontaktuan dauden goiko laba-hodiek oin laua dutela eta sabaia erdizirkularra dela; hau da, planikonbexuak dira, eta horrek adierazten du seriea alderantzikatua dagoela.

Deskribapena

Uarkako GILa adin kretazeoko material bolkanikoen banda batean kokatua dago; Gernikatik ekialdera azaleratzen da banda, Bizkaiko sinklinorioaren iparraldeko alpean. Banda material bolkaniko koherentez osatuta dago; materialok koladak, gehienbat kuxinduk, arroka mikropikortsuak (*sill*-ak) eta dikeak eratzen dituzte. Material bolkanikoak tuparri, kareharri tupatsu, hareharri eta lutiteta tartekatuta daude; dena dela, banda bolkaniko hori, iparraldeko muturrean, Gernikako diapiroaren material triasikoekin kontaktuan dago zuzenean.

Uarkako harrobiko zulorik handiengan, sekuentzia bolkanosedimentario bat azaleratzen da; lutita, hareharri- eta tuparri-materialetan tartekatutako laba basaltikozko bi koladaz osatuta dago. Sekuentzia, murrutik sabaira, honela antolatuta dago: lehenik, hareharri-zko maila bolkanosedimentario laminatu batzuk, eta, haien gainean, konkordantzia, kuxin-laben hodiak, oin laukoak; gainean, kuxin-laben hodi zirkularrak. Oin lauko hodiak eta gainean dauden laba-hodi zirkular batzuen puntak ikusita, erraza da deduzitzea seriea, puntu horretan, alderantzikatua dagoela. Horretaz gainera, badirudi kuxin-labazko hodi horiek megakuxin batetik eratorri direla (ikusi argazkiak). Megakuxin batean errotutako kuxin-laba mota hori eta kuxin-laba arruntak genetikoki desberdinak dira, zeren eta arruntak zuzenean errotuta baitaude foku bolkaniko batean eta emisio-abiadura txikian eratzen baitira.

Bigarren kolada basaltikoa beheko kolada kuxindutik bereizita azaleratzen da; bien artean, arroka sedimentarioen hamar metro inguruko lodierako pakete bat dago. Lehenengo koladan bezala, laba tubularrak dira, baina, kasu honetan, hodian zeharkako sekzioak eliptikoagoak dira, zapalagoak, eta laba lobulatu edo *lobate flows* deritzen laben antza dute. Laba lobulatuen koladak (*lobate flows*), halaber, urpeko inguruneetako ohiko labak dira, eta kanpo-gainazal leuna izaten dute. Laba lobulatuak eratzeko, emisio-abiadu-

ra handiagoa behar da ohiko kuxin-labak eratzeko baino. Bigarren laba-kolada horren sabaia irregularra da; gainean metatutako material sedimentarioak goiko laba-hodien profil irregular eta lobulatuari egokituta daude, eta hori da kolada horren bereizgarria. Labaren eta haren gaineko sedimentuen arteko erlazio-mota hori polaritate-irizpidetzat ere erabil daiteke, eta, berriz ere, Uarkako sekuentzia bolkanosedimentarioaren izaera alderantzikatua egiaztatzen du.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 15, GIL 62, GIL 66, GIL 97.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 35, GIL 36, GIL 37, GIL 38, GIL 39, GIL 40, GIL 41.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala	●			
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				●
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Bertan behera utzitako bi harrobi zahar daude.				

Bibliografia espezifikoa

- Mendia, M., Aranburu, A., Carracedo, M., González, M.J., Monge-Ganuzas, M. eta Pascual A. (2010). *Lugares de Interés Geológico de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Urdaibai Biosfera Erreserba, Eusko Jaurlaritza, 182 or. <http://www.euskadi.net/geodibertsitatea>.
- Mendia, M., Monge-Ganuzas, M., Díaz, G., González, J. eta Albizu, X. (2011): *Guía de lugares de interés geológico de Urdaibai*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 341.